

# **HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA: LEHEN HEZKUNTZARAKO SEKUENTZIAZIO MARKOA**

## **PROPOSAMEN BAT**

1. HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUAREN BEHARRIZANA
2. LEHEN HEZKUNTZAKO SEKUENTZIAZIO MARKOA

SEKUENTZIAZIO KONTZEPTUA

OINARRIZKO KOMPETENTZIAK

AUKERA METODOLOGIKOA: IKUSPEGI KOMUNIKATIBOA

PROPOSAMEN IREKIA

IDAZKETA PROIEKTUAK

HIZKUNTZAK BESTE ARLOETAN

TESTU GENEROEN ANIZTASUNA

KOOPERAZIOA, PROIEKTU GUZTIETAN

H1, H2, H3

INKLUSIOA

3. LEHEN HEZKUNTZAKO EDUKI LINGUISTIKOEN SEKUENTZIAZIO MARKOA  
EGITEKO IRIZPIDE OROKORRAK

## **1. HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUAREN BEHARRIZANA**

Badira 25 urte baino gehiago Euskal Hezkuntza aldatzen hasi zenetik: ohiko sistema elebakarra elebidun bihurtzeaz gain, atzerriko hizkuntzaren presentzia gero eta nabariagoa da irakaskuntzarako objektu legez zein edukiak transmititzeko tresna moduan. Horri loturik, bestalde, azken urteotan ugaldutako migrazio-lekualdatzeen ondorioz, hizkuntza-biografia anitzak dituzten ikasleak heldu dira eskoletara. Ikasleen hizkuntza errealitate berri horrek, hein handi batean eleanitza eta kultura anitza, behartu egiten du gogoeta egitera eta hizkuntzen irakaskuntzaren metodologia birplanteatzera.

LOGSEekin (1992) batera garatu ziren Erkidegoko Oinarrizko Curriculum Diseinuen irakaskuntzarako orientabide aurreratuak bildu zituzten, horien artean Hizkuntzen Trataera Bateraturako (HTB) proposamena. Proposamen horren abiapuntua hizkuntza-ikaskuntza guztiak hizkuntza-arlo bakar batean integratzea da. Horren ondorioz, Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, Oinarrizko Curriculum Diseinu bakar batean elkartu ziren Derrigorrezko Hezkuntzan. Arlo berri honen ikuspuntua integratzailea zen eta hizkuntza guztien irakaskuntzarako planteamendu homogeen bat defendatzen zuen. Planteamendu horrek H1 eta H2 ikasteko eta irakasteko metodologia, metahizkuntza, eta planifikazio komunak bultzatzen zituen, bai denbora baliatzeko bai irakasle eta ikasleentzako alferreko errepikapenak ekiditeko asmoz.

Lan ildo horri jarraituz, Curriculum berriak (2007ko azaroa) 1992an aurkeztutako proposamen berritzaile haiek, Europako Erreferentzi Markoak (EEMB, Estrasburgo, 2001) ere zehaztuak, garatzeko ahalegina egiten du. Curriculumak dioen legez *"Hizkuntzak modu integratuan irakastea honako arrazoi hauen ondorio da. Batetik, ikasleak elebidunak edo eleanitzak direnez, une oro hainbat hizkuntza dakizkitez eta horien bidez lortutako*

*ezagutzak dituzte, beren euskarri kognitiboak eta emozioak osatzen dituztenak, hain zuzen. Eta bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak trukatzeko ahalmena eta, hiztunek parte hartzen duten eremuetan, hainbat hizkuntza aldi berean egon ahal izatea aipatu behar dira. Egiaptapen horien arabera, beraz, alor bakoitzean alorrari dagokiona landu beharko da eta bateragarriak diren gaiak guztien artean trukatu beharko dituzte, betiere bakoitzaren erabilera egokia bultzatuta".*

Idea hori EEMBn ere jasota dago: "...gizabanakoak (...) hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gune berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bakarra garatzen du, hizkuntza arloko ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez " .

Hizkuntzaren zientziek hizkuntzari buruz eta, oro har, komunikazioari buruz egiten duten analisiak goian esandakoa berresten dute eta, aldi berean, Hizkuntzen Trataera Bateratuaren proposamena indartzen dute. Horrela, proposamen horren azken emaitza behagarria curriculumeko hizkuntzen programazio adostua litzateke, abiapuntu gisa asmo komunak eta antzeko metodologiak izan beharko lituzkeena, hizkuntza batean ikasitakoa besteetara transferitzea ahalbidetzeko, beti ere gure bi hizkuntza ofizialen egoera diglosikoa kontuan izanik..

Programazio hori gauzatu daiteke honako printzipio hauek kontuan izanez gero:

- ❖ Hizkuntzak ikasteko eta jabetzeko prozesuak antzekoak dira hizkuntza guztietan.

- ❖ Hizkuntza guztien irakaskuntzak helburu bakarra du: erabiltzaile gaituak lortzea, hau da, hizkuntza guztietan, ahoz zein idatziz, testu anitzak eta ezberdinak ulertzeko zein ekoizteko gaitasuna garatzen duten hiztunak.

❖ Hizkuntza guztiek komunak dituzte eduki gehienak, esate baterako :

- Prozedurazko edukiak, testuak ulertu zein ekoizteko
- Ikasteko eta komunikatzeko estrategiak.
- Kontzeptuzko edukiak: testu- tipoen eta generoen ezaugarriak, hizkuntza kontzeptu orokorrak eta metahizkuntza.
- Jarrerazko edukiak, hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko zein hiztunekiko interesa ahalbidetzeko.
- Diskurtso literarioaren ezaugarri orokorrak, bai maila historikoan bai erretorikoan, testua edozein hizkuntzatan izanda ere.

Hizkuntzen arteko egoera diglosikoa dela eta, gutxituaren aldeko diskriminazioa ezinbestekoa da gorago aipatu den helburua lortzeko bi hizkuntzetan, ahoz zein idatziz, testu anitzak eta ezberdinak ulertzeko zein ekoizteko gaitasuna garatzen duten erabiltzaile gaituak lortzea. Horretarako, ikastetxe bakoitzak, bere testuingurua kontuan izanik eta marko honek biltzen dituen irizpideak kontuan izanik, besteak beste, egokitzapenak egin behar ditu.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak "Hizkuntzen Trataera Bateratua" programa bultzatzen du Hezkuntza-Jardueraren Esparru Orokorraren (2007-2010) hizkuntzen agerpenaren, erabilpenaren, eta didaktikaren inguruko lehentasunezko ildoaren baitako oinarrizko ekintza gisa. Programa honek lehenago azaldutako ideiak bildu nahi ditu, eta helburu handiak lortzeko asmoz sortu da, ondoko helburu nagusi honetan laburbildu daitezkeenak:

**Euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzen irakasleen arteko lankidetzaren bultzatzea eskolako hizkuntzen programazio bateratua**

**garatu dezaten, eguneroko praktikatik abiatuta eta ezinbestekoak diren gogoeta teorikoak kontuan izanik.**

Baina Programazio Bateratua garatu baino lehen, irakasleei lagundu behar zaie gogoeta teorikoa garatzen, praktika aztertzen eta erabakiak hartzen. Hau da, ezinbestekoa da ikastetxeko hizkuntza-irakasleen lan kooperatiboa bultzatuko duen prestakuntza plana garatzea. Halaber, zenbait dokumentu aurkeztu beharko dira: irakasleei lagunduko dieten programazio ereduak; orientabide orokorrak, edukien banaketarako proposamenak eta unitate didaktikoen adibideak.

Horretarako, lehenengo pausua sekuentziazio markoa diseinatzea da, honen bidez proposamen bat aurkeztuko da ikaskuntza helburuak eta hauek garatzeko beharrezkoak diren edukiak (prozedurazkoak, kontzeptuzkoak eta jarrerazkoak) sailkatzeko.

Agiri honetan, Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ikuspuntutik sekuentziazio markoa gauzatzeko proposamen bat aurkezten da, Lehen Hezkuntzako irakasleentzat ikas-irakas prozesuetako jarduerak antolatzen laguntzeko gida izateko asmoz.

## **2. LEHEN HEZKUNTZARAKO SEKUENTZIAZIO MARKOA**

### **SEKUENTZIAZIO KONTZEPTUA**

**Sekuentziazioa**, hezkuntza etapa batean ikasleek ikasiko dituzten hizkuntzen arteko edukien banaketarako proposamena da dokumentu honetan. Lehen Hezkuntzako izaera globalizatuak, bestalde, eskatzen du hizkuntzakoak ez diren edukiak ere marko honetan sartzea, gutxienez matematika, ingurune eta tutoretza edukiak.

Edukiak hainbat irizpideren arabera sailkatu ahal dira, kasu honetan, komunikazio atazen arabera. Edonola ere, Kontuan hartu beharko diren oinarrizko irizpideak zehaztea ezinbestekoa da.

### **OINARRIZKO KOMPETENTZIAK**

Sekuentziario markoaren funtsezko irizpideak zehazterakoan, oinarrizko gaitasunak ere hartu dira kontuan. Oinarrizko gaitasunen ezaugarri nagusia "egiten jakitea" da berez, hau da, errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena, ezagutzak, prozedurak eta jarrerak biltzen baititu.

Edukiak elkarri lotuta ulertzeko modu horrek aldatu egiten du kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiei buruz sarri erabili izan den ikuspegi zatitzailea. Horregatik, gaitasunen garapenari laguntzeko eta horiek bultzatzeko metodologia da oinarria. Metodologia batzuek garapen hori lagun diezaiokete eta, era berean, beste batzuek oztopatu. Hori dela eta, metodologia zehatz bat aukeratu da markoa egiterakoan, ikuspegi komunikatiboa hain zuzen ere.

### **AUKERA METODOLOGIKOA: IKUSPEGI KOMUNIKATIBOA**

Kontuan hartu behar da, lehendabizi, HTBK ikuspegi komunikatiboan oinarrizko metodologia eskatzen duela. Horren ondorioz, alde batetik, hizkuntzak lantzeko benetako komunikazio xedea duten proiektuak edo atazak proposatuko dira; eta beste alde batetik, ikasgeletan testuen aniztasuna ziurtatuko da: testu-tipo eta testu-genero anitzak lantzeak hizkuntzaren hainbat alderdi jorratuko direla bermatuko du.

Horretaz gain, edukiak ikasleek gauzatuko dituzten atazetan antolatutako dira eta Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen artean eta ikastetxean lantzen den atzerriko hizkuntzaren artean banatuko dira.

Ezinbestekoa da hizkuntza bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak zein hizkuntzen alderdi komunak sakonki lantzea.

Bestalde, funtsezkoa da landutako hizkuntzetan diskurtso mota, testu-genero, testuen xede eta edukien errepikapena ziurtatzen duen sekuentziario ardatza aukeratzea, bai eta beraien arteko banaketa orekatua egitea; horrela, kontzeptuen errepikapena, berritzea eta gehitzea bermatuko da. Edukien errepikapena eta progresioa kurtso bakoitzean lantzen diren hizkuntzetan garatzeaz gain, hurrengo kurtsoetan ere aplikatuko da, aurreko kurtsoetan edozein hizkuntzetan ikasitakoa erabiliko delarik.

### **PROPOSAMEN IREKIA**

HTBren euskarria aukera metodologiko jakin bat da, antolaketarako ardatz gisa, ikasleen komunikazio-beharrak aintzat hartzen dituen. Hizkuntzaren deskribapenean oinarrituta dauden beste ikuspegi formal batzuetan ez bezala, sekuentziario ardatzak hainbat aukera ezberdin emango ditu, eta horrela, kontuan hartuko ditu, besteak beste, ikasleen komunikazio beharrianak, hizkuntzen menperatze maila, hizkuntzen presentzia inguruan... Horregatik, marko hau adibide bat, eredu bat; egin daitezkeen sekuentziario marko guztietatik aukera bat aurkezten du, aurrez ezarritako irizpide argi eta zehatz batzuetatik abiatuta.

Zeresanik ez, ikastetxearen egoera soziolinguistikoak, hizkuntzekiko hartutako erabaki eta jokabideek (eta zentzu horretan orain arteko ibilbideak) ikastetxearen izaerak berak eta izanahiak ere zeresan handia izango dute proposamena norabideratzeko.

### **IDAZKETA PROIEKTUAK**

Curriculumeko edukiak (hizkuntzakoak eta arloetakoak) proiektuen bidez lantzea proposatzen da. Proiektuen ardatza komunikazio-helburua

duzen ahoz zein idatzizko testuak ekoiztea da. Proiektu bakoitzean landu beharko den gaiaz gain, testu-generoari dagozkion ezaugarriak aintzat harturik, ikaskuntza helburua eta edukien hautaketa eta antolaketa adieraziko dira.

Irakaskuntzaren helburua hizkuntzen erabilera egokia, koherentea eta zuzena da eta horixe da, beraz, ikaskuntzako jarduerak antolatzeko ardatza. Hizkuntzaren gaineko hausnarketa, erabilera hobetzeko ezinbestekoa, erabileraren inguruan gauzatuko da, ekoiztu edo ulertu beharko den testuari lotua.

### **HIZKUNTZAK BESTE ARLOETAN**

Etapak duen izaera globalizatuak arlo kurrikularen edukiak lan proiektu hauetan uztartzea exijitzen du. Horretaz gain, hizkuntza ezagutzak transmititzeko oinarrizko bidea da; gertakariak hitzez adierazten dira, arauak hitz bihurtzen dira eta hitzak, batez ere, ikasteko erabiltzen dira.

Matematikak inguruan duen presentziak eta eguneroko bizitzan duen erabilerak sekuentziazio markoan sartzea ahalbidetzen dute. Ingurune fisiko eta sozialaren kasuan, berriz, nabarmenagoa da, gertakari fisiko eta sozialak behagarriak dira eta behaketa horren gaineko hausnarketan inguru fisikoaren eta sozialaren legeak daude. Tutoretza arloan norberaren sentipenez hitz egiten da eta akordioetara heltzen gara hitzen bidez.

Testuak ezinbestekoak dira ingurune zein Matematika ikasteko edo zientzia "egiteko". Testuak ondo ulertzeko eta erabiltzeko, berriz, beharrezkoa da testuen formatua zein gaia garatzeko eta horri eusteko baliabideak ezagutzea.

Ideiak argi adierazten jakin behar da. Eskolan ekoiztutako testuek ideia okerrak edota gaizki adierazitakoak islatu ez ditzaten. Horrenbestez, testu



koherenteak, ondo egituratuak, argiak eta eraginkorrak ekoiztu eta ulertu behar dira.

Gainera, arlo bakoitzak hizkuntz baliabideen erabilera berezia egiten du: gaiaren arabeko erregistro aldaketa; lexiko kolokiala edo teknikoa, testu-genero ezberdinak... eta hau ere landu egin behar da. Beste ikuspuntu batetik, hizkuntzen ikaskuntzak, baita matematikarenak eta inguruaren ezaguerarenak ere, ikasleen gaitasun kognitiboa baliatzen dute.

### **TESTU-GENEROEN ANIZTASUNA**

Marko hau egiterakoan hiru testu-tipo nagusien barruan (narrazioa, azalpena, argudioa) sailkatu dira testu-generoak. Proiektuek hiru testu-tipoetan txertaturik dauden testu-genero anitzak ulertzeko eta ekoizteko helburua dute; eta didaktikari begira ikasleentzat baliagarriak izan daitezkeen generoak lantzeko ahalegina egin da. Proiektu gehienetan testu genero bat baino gehiago ulertu eta ekoitzi beharko da, eta hortik abiatuta, testu tipoen ezaugarri komunak zein alderdi ezberdinak landuko dira.

HTBren ikuspegitik kurtso bakoitzean hizkuntza guztien artean testu-generoen aniztasuna landu nahi izan da.

"Azken ekoizpena", gehienetan, ikasleek fase guztietan (testuinguratzea, planifikazioa, egituraturatzea, testualizatzea) ekoitziko duten testu bat izango da. Baina, noizbehinka, bestek ekoitzitako testua jendaurrean aurkeztu (azaldu, antzeztu, abestu, kontatu, irakurri...) baino ez dute egingo, hau da, azken ekoizpena transformazioa edo interpretazioa izango da.

### **KOOPERAZIOA, PROIEKTU GUZTIETAN**

Proiektuek ikasteko eta irakasteko giro kooperatiboa sustatu beharko dute. Izan ere, aukera paregabea emango dute ahalmen ezberdineko ikasle

guztien arteko elkarreragina bultzatzeko. Beraz, proiektuak aurkezterakoan, eta bereziki, unitate didaktikoen ereduak garatzerakoan, hainbat taldekatze mota izango dira kontuan.

### **H1, H2 , H3**

Soziolinguistikak H1 eta H2ren arteko bereizketa egiten du: **"H1"** ikasleak eskolaratzean dakien hizkuntzari deitzen zaio; hau da, "ama hizkuntza"ri edo, baita, gizarteratzeko lehen hizkuntzari; **"H2"**, aldiz, eskolan ikasiko duen bigarren hizkuntzari edota inguru sozialean mintzatzen denari deitzen zaio.

Marko honetan, ez da kontuan izan zein den ikasleen H1 edo H2. H1 da eskolak lehenesten duen hizkuntza eta eskolako bigarren hizkuntza, H2; kontuan izanik, ikasleentzat H1 eta H2 euskara edo gaztelania izango direla. Ikastetxeetan H1rako edo H2rako proposamenak trukatu egin daizteke

Horretaz gain, **"H3"**rako proposamena ere egingo da proiektuetan. H3 ikastetxean ikasten den atzerriko hizkuntzarekin lotzen da, oro har, ingelesarekin. baina ikastetxeak beste hizkuntza bat aukera dezake (alemana, frantsesa...).

Ikasleen beste ama hizkuntzak ez dira kontuan hartuko eskolako curriculumean presentzia ez dutelako. Bere trataera, balioespena eta abar ikastetxearen Hizkuntza Proiektuari dagozkio..

### **INKLUSIOA**

Dokumentu honetan eskola inklusiboaren aldeko apustua egiten da. Eskola honetan ikasle guztiek dute beren burua dagokien hezkuntza-komunitateko kideztat hartzeko eskubidea bai eta gainontzekoek ere halakotzat hartzeko, edozein delarik beren gizarte-ingurunea, jatorrizko kultura, ideologia, sexua eta etnia, edota ezintasun fisikoaren,

intelektualaren eta sentesorialaren ondoriozko edo intelektualki gain dotatua izatearen ondoriozko egoera pertsonala; eta horretaz guztiaz gain, hizkuntzen eta hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak sustatuko dira.

Horregatik, ikuspuntu horri eutsirik, proiektuek ahalmen ezberdina duten ikasleei begira proposatuko dira eta ikasle guztien arteko elkarreragina bultzatuko dute. Beraz, proiektuek ikas-irakaskuntza egoera anitzetara egokitu daitezkeen eredu moldagarriak ahalbidetu beharko dituzte.

### **3. LEHEN HEZKUNTZAKO EDUKI LINGUISTIKOEN SEKUENTZIAZIO MARKOA EGITEKO IRIZPIDE OROKORRAK**

Ez dago esandako ezaugarriak errespetatu eta hizkuntza arloen eta hizkuntzakoak ez direnen artean curriculumeko edukiak sekuentziazteko aukera bakarra. Hau da, hainbat marko antolatu daitezke, programazio ezberdinak eta baliagarriak bideratu ditzaketenak. Horregatik, sekuentziazio markoa garatu baino lehen antolaketarako irizpideak zehaztu behar dira.

HTB programaren sekuentziazio markoa gauzatzean bi mailatako antolaketa-irizpide esanguratsuak hartu dira kontuan. Maila batean, oinarrizko irizpideak (letra lodiz adieraziak); horiek ez betetzeak markoa baliogabetzea ekarriko luke; izan ere, horiek guztiak ikuspegi komunikatiboari eta Hizkuntzen Trataera Bateratuaren oinarriei loturik daude. Beste maila batean, aukerakoak diren beste metodologi-irizpide batzuk. Irakasle talderen batek markoa beren ikastetxeari egokitu nahi izanez gero, aukerako irizpideak soil-soilik alda litzake, kontuan izanik, bat aldatzeak oreka hautsi eta gainontzeko irizpideek aldaketa beharko luketela.

Sekuentziazio marko hau egitean kontuan izan diren irizpideak honakoak dira:

❖ **Testu tipologiari lotutako sailkapen guztietatik, antolaketarako ardatz gisa baliagarritasun didaktiko handia duen bat hautatu da: hiru testu-tipo bereizten dituenak, hain zuzen ere (testu narratiboak, azalpen testuak eta argudio testuak).**

❖ Ikasle guztiek hizkuntza ezberdinetako unitate didaktikoetan proposatuko diren testu-tipo bera lantzeko proiektuak gauzatuko dituzte; horrela, ikasleak hizkuntza guztietatik bateratsu hurbilduko dira testu-tipora zein proposatutako gaira. Ikasleek hizkuntza desberdinetan testu-tipo guztiak eta beren ezaugarriak aztertzeko eta konparatzeko aukera izango dute, antzekotasunez eta ezberdintasunez hausnartzeko eta hizkuntza batetik bestera transferentziak egiteko.

❖ Testu-tipo guztiak maila guztietan landuko dira, gaitasun desberdinei lotutako eduki espezifikokoak sendotu eta sekuentziatzeko asmoz. Garrantzitsua da etapa honetan fikziozkoak ez diren eta arloetako edukiei lotuta dauden testu narratiboak lantzea.

❖ Kurtso bakoitzean ahalik eta erabilpen-eremu gehien lantzeko ahalegina egingo da, ikasleak gai izan daitezen hizkuntza edozein erabilpen-eremutan erabiltzeko. Erabilpen-eremu baten maiztasuna lotuta egongo da ikaslearen bizitzan duen garrantziarekin.

❖ **Proiektu guztietan hainbat testu-genero landuko dira (ulertu zein ekoiztu), ikasleek testu-genero ezberdinak ezagutu ditzaten eta azken ekoizpenerako informazioa bildu dezaten.**

❖ **Literatura eremuko proiektu bat proposatuko da maila bakoitzean; izan ere, hizkuntza arloko curriculum edukia da, eta ikasleek hitzen mundura hurbiltzeko laguntza behar dute, bestela eskuragaitza izango litzaieke.**

❖ **Azken ekoizpen guztiek komunikazio xede esplizitu bat izan behar dute eta ikasleak horren jakitun izango dira lanaren hasieratik, lanaren funtzionaltasunaz kontziente izateko. Landutako testuen komunikazio egoera argia eta anitza izan behar da.**

❖ **Hizkuntzen presentzia testuinguruan eta hizkuntza gutxituaren aldeko erabakitako aldeko jarrerak eta jokabideak, kontuan izango dira komunikazio egoerak hautatzerakoan.**

❖ Atzerriko hizkuntza eskolatzearen hasieratik hartuko da kontuan INEBI eta antzeko esperientzietako irizpide didaktikoak baliatuz .

❖ Proiektuak zikloka antolatuko dira.

❖ **Proiektuen abiapuntua ikasleen interesak dira, bai eskola barrukoak bai beren inguru hurbilekoak, eta bistakoa izan behar du ikasgelatik kanpoko erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna...** Honako hauek izan daitezke besteak beste, lehen hezkuntzako ikasleen intereseko gaiak:

- Zaletasunak: jokoak, irakurketa, kirolak, musika, telebista, bidaiak...
- Pertsonen arteko harremanak, familiakoak batez ere.
- Gaurkotasuna, beren egunerokotasunarekin lotutakoak eta nazioen arteko ekintza nagusiak.
- Teknologia zein zientzia arloko aurrerakuntzak eta aurkikuntzak.
- Baloreak (zehar lerroak).

❖ **Proiektuak globalizatuak izango dira; hau da, arlo linguistiko zein ez linguistikoei erantzungo diete.**

❖ **Proiektu bakoitza amaitzean ikasleek testu bat ekoitzi beharko dute. Azken ekoizpena, ikasturtean behin gutxienez, ahozkoa izango da eta, ikasturtean behin gutxienez, gelatik kanporako proiektzioa izango du.**

- **Azken ekoizpen bat egitea proposatuko da ikasleek beren lanaren helburu komunikatiboa ikus dezaten, eta prozesuan zehar ikasitakoa erabil dezaten.**
- **Azken ekoizpenetako batek, ikasturtean behin gutxienez, ahozkoa izan beharko du, ikasleek elkarreraginerako estrategiak eta ahozko komunikazioaren arauak ikasi ditzaten, ahozkotasuna gizartean duen garrantzia kontuan izanik.**
- **Azken ekoizpena, behin gutxienez, gelatik kanpo ateratzea proposatuko da hizkuntzaren erabilpena beste testuinguru batera hedatzeko. Horrek testua beste errealitate batera egokitzea eskatuko du eta egindako lanari adierazgarritasuna emango dio.**

❖ Ahozko eta idatzizko azken ekoizpenen proportzioa ikasleen ezaugarrien eta beraien hizkuntzaren ezagupenaren araberakoa izango da. Etapa hasieran eta hizkuntza berri bat sartzean ahozko ekoizpenak ugariagoak izango dira. Beti ere, sekuentzian ahozko ulermena zein ekoizpena garatzeko atazak ere egongo dira komunikazio estrategiak lantzeko, nahiz\_ eta azken ekoizpena idatzia izan.

❖ Europako Erreferentzia Markoan finkatu diren bost trebeziak (irakurri, entzun, idatzi, hitz egin eta ahozko elkarreragina) lantzeko jarduerak ezinbestekoak izango dira\_.

❖ Proiektuek 3-5 aste bitarteko iraupena izango dute, batz bestea. Laburregiak badira, ez da garatuko testuak ekoizteko prozesua. Luzeegiak badira, ordea, lanaren xedea galduko da, ikasleek ez baitute emaitza ikusiko. Proiektuen iraupena ikasleen adina eta ezaugarrien arabera egokituko da.

❖ **Proiektuetan zein beraiek garatzeko jardueretan, talde-lana bultzatuko da. Talde-antolaketa kurtsoan zehar aldatuko da ikasleen inklusioa zein haien arteko elkarreragina bermatzeko. Elkarreraginak**

**erabateko eragina dauka ikasleen ikaskuntza prozesuan eta are gehiago berdinen arteko interakzioa bada.**

❖ Ikasleen hizkuntza eta kultura aniztasuna oso onuragarria izango da proiekturako. Ahozko ekoizpenetan eta hizkera informalean, etxetik dakartzan hizkuntzaren berezitasunak errespetu handiz tratatu behar da hizkuntzak dauzkan erregistro ez-formalak ez diskriminatzeko.

❖ **Etaparen honen ezaugarriak kontuan izanik, oso garrantzitsua da proiektuen hasieran eta amaieran auto-erregulazio jarduerak egitea, ikaskuntzarako autonomia, balioetan oinarritutako heziketa, bizikidetzaren eta abar bultzatzeko.**

Marko honen ondorioz, zenbait agiri osatu ditugu non markoaren zehaztapenak garatzen diren:

- Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko proiektuak biltzen dituen aurkezpen orokor bat. Bertan, proiektu bakoitzaren oinarritzko informazioa biltzen da: proiektu bateratuaren izenburua, hizkuntzen erabilpen-eremua, testu-tipoa, eta azken ekoizpena (H1, H2, H3).
- Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako agiri bat; bertan, ondokoak bildu dira:
  - Proiektuaren zehaztapena hizkuntza bakoitzerako: komunikazio egoera (gaia, emaila eta hartzailea, giza eginkizuna, kanala, xedea eta helburua, publikazio gunea, erabilpen-eremua, aukeratutako testu-tipoa eta testu-generoa, proiektua garatzeko erabilgarriak diren beste testu-generoak...) eta helburu didaktikoak.
  - Hizkuntza bakoitzean landu daitezkeen edukiak, testuen egokitasuna, koherentzia, kohesioa edo zuzentasunaren arabera antolatutakoak.

***HTB. LHrako sekuentziaziorako markoa***

- Proiektuan txertatutako curriculumeko arloetan landu daitezkeen edukiak.

Erabilgarriak izango direlakoan, agiri guzti hauek berritzeguneengandik eskura ditzakezue.